



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

HITZEN
LIHOA
IRUTEN



SARIA:
LESAKAKO
LINDDURRENBORDA
SAGARDOTEGIAN
BI LAGUNENTZAKO
OTORDUA

2019ko OTSAILA

161. ALEA

IZENAK IZAN



DANI MARTIARENA

Gure eskualdean badira idazle anitz; gehienek sormen lana bertze jarduera batzuekin uztartzen dute: kazetaritza, itzulpengintza, irakaskuntza... Dani Martiarena Indart idazle-kazetariari elkarrizketa egin diogu hainbat gai ukituz:

1.- Nor da Dani Martiarena?

Legasan sortua, Bidasoa bazter horretan dut haurtzaroa, eta, hortaz, hor inguruan harilkatzen zait aberria. 45 urteren bueltan naizen honetan, Legasan ditut nire lehen oroitzapenak. Begiak itxi eta erraz oroitzen ditut udako arrats epeletan ezkutaketan jostatzen ginenekoak, harrobi zaharrear hagitzez zaharragoak ziren fosilak aurkitzen genituenekoak... Bistan da haurtzaroan dituela zainak, bai, gure lehen lurak. Ni ere honen iritzikoa naiz. Legasan bizi dira oraindik aita eta arreba. Bizitzaren ezustekoen ondorioz, egun, Erason bizi naiz, Imotz bailaran, Irurtzundik gertu, emaztearekin, semearekin eta alabarekin batera.

2.- Txikitan zer izan nahi zuen Danik? Kazetari, idazle...


Nerabezaroan nahiko garbi ikusi nuen kazetari izan nahi nuela. Zehatzagoak izateko, gerretatik berriemaile izan nahi nuela, anitzek bezala... Eta, kazetari soil bat izatera iritsi naiz, eta ez idazlea. Kazetaritza dut ogibide aspaldi honetan. Hasiera batean, prentsa idatzian ibili nintzen, Argian kolaborazioak eginez, edota Diario de Noticiasen ere euskarazko orrialdeen erredaktore. Egun, hondarreko hamar urte hauetan, Euskal Telebistako albistegietan lan egiten dut. Idazlearen etiketa handiegi dut.

3.- Kazetaritza ba al da tokirik idazleek pintura zertzeladak egiteko? Ukitu literarioa emateko?

Nire uste apalean, kazetariak izan behar du idazle eta irakurle. Idazleek hizkuntza dute lanabes, eta kazetariak ere. Azken buruan, egunerokotasunaren isla izateko xedea duen albistea izan daitekeen horrek istorio txiki bat du bere barruan, eta istorio hori azaltzeko eta agertzeko ahaleginean ukitu literarioa izaten ahal da aukeretakoa bat. Hots, istorio horretan kazetariak ere topatu behar du hasiera, korapiloa, eta bukaera (telebistan irudiek izugarri laguntzen dute). Eta, horretarako guztirako, hizkuntza da lanabesetako bat. kazetaritzak ere zirrikituak izan badituela edertasunari -hitzena zein irudiena- keinuak egiteko eta, bide batez, izkin batetik, literatura ere ferekatzeko...

4.- Azkeneko liburu-albumek: *Hankaz gora du amak mundua, Jonek Jone izan nahi du, Cosimoren katiuskak*... gai "potoloak" lantzen dituzte. Nork ulertzen ditu hobeki gai horiek, helduok ala umeek? (Laburtzerik gai potolo horiek?)

Nork bere modura, noski. Hankaz *Gora Du Amak Mundua* liburuan, hipoteka ezin ordaindu duen ama baten istorioa kontatzen dugu, bere alabaren begietatik iragazia. Krisia gora, eta krisia behera, ama hau bakarso-lasean ibiltzen da telebistako aurkezleekin eta nahiko luke izan berak ere marraskilo bat, etxea beti soinean izateko, eta hipotekarik ordaindu behar ez izateko horrela... Era dibertigarrian. Haurren irudimenak ez du mugarik.



IZENAK IZAN



Jonek Jone Izan Nahi Du album ilustratua, berriz, ofizioen jolas zaharra eskaintzen da. Hurrei maiz galdetzen zaie zer izan nahi duten handitan. Izan ere, galdera hori erantzuten ibiliko da gure protagonista. Eta izan nahiko du piloto, yoga irakasle edo rock banda batean abeslaria. Gertatzen dena da zakila duen neskatikoa dela Jon. Baina, normaltasunaren eta aniztasunaren aldarria egin nahian, afera honi, transexualitateari, ez diogu aparteko garrantzirik ematen gure liburuan. Hurrek naturaltasun handiarekin bizi izaten dituzte horrelako prozesuak.

Cosimoren katiuskak da gure hirugarren liburua. Cosimok parke txiki batean eraiki du etxola, zuhaitz baten puntan, eta bertatik erreparatzen dio hiriari eta, bide batez, munduari. Gertatzen baita parkea desagertzeko arriskuan dagoela, zementoa nagusitzen ari da eta banketxe bat eraikiko da. Ingurugiroaren errespetuaz, eta garapenaren noraezaz hausnarketa izan nahi du. Helduentzat hau gehiago, hurrek gehiago gozatzen dutelako

5.- Aurten Etxepare saria irabazi duzue (Ana Ibañez bikotearekin elkarlanean) *Cosimoren katiuskak* albumarekin. Orain arteko autoedizioaz liburuak argitaratu dituzue, oraingoan, berriz, Pamiela, argitaletxearen eskutik. Ba al da alderik?

Bai, desberdina da prozesua. Argitaletxe baten babesak aukera berriak eskaintzen dizkio liburuari. Hasteko, banaketa zabalagoa izanen du. Etxepare Saria irabazi izanak ere indarra ematen dio liburuari. Etxepare Sarira, berez, liburua osorik eta bukatuik aurkeztu behar izaten da. Autoedizioaren bidetik sormen lan bat babesten duzunean, bertzelakoa izaten da bidea. Guztia zure kargu hartzen duzu, guzti-guztia. Eta, honek, noski, ederretik eta erronkatik badu anitz, baina baita neketik zein zailtasunetik ere.

6.- Bidasoa eskualdean idazle anitz izan dira eta badira. Nola baloratzen duzu une honetan gure sormenaren egoera? Eta etorkizuna?

Zoko orok behar ditu bere sortzaileak, bertatik sortzea, mundura zabaltzeko gero bertakotik bertakoentzat eta guztientzat. Beti izaten da norbait sortzeko behar horretara korapilaturik. Bere bakartasunetik ia beti, eta berri ona izaten da eskualdeko sortzaileen lanen berri izaten dugunean, berdin letretan, musikan, edo artearen bertze molderen batean. Eta guztiak etorkizuna izanen du, noski, hau seguru, sortzeko beharra betidanikoa izan eta betirakoa izanen delako. Noski, ez dut izen eta abizenez sortzailerik aipatuko, inor atzendu nahi ez dudalako. Hori bai, plazer handia eragin izan didate eskualdeko sortzaileen lanaren gozamenek.

7.- 2018an, Euskaraldia; aurten, gure eskualdetik Korrika pasatuko da. Nola ikusten duzu euskararen osasuna gurean? Eta Nafarroan?

Hobera egin dugula iruditzen zait, nahiz eta, noski, aunitz den oraindik lortzeko. Azken hamarkadan euskarak gero eta toki gehiago du gure egunerokoan, eta hau sumatzen dela uste dut. Gure eskualdea bada hein batean euskararentzako arnasmunea, euskaraz bizitzeko eskubideak eta gogoak aukera dute eskubide eta nahia izateko gurean. Nafarroari erreparatuta, bistan da Euskararen Legeak inposatzen duen zonifikazioak hizkuntza eskubideak urratzen dituela eta hori, oraindik, ataka da, traba, euskararen normalizazioari eta bere etorkizunari begira. Euskararen aldeko mugimendua euskararen ofizialtasuna Foru Erkidego guztira eramateko lanean da jo eta su hondarreko urte hauetan, eta Euskaraldiak zein Korrika bezalako ekimenak ere eraginkorrak dira helburu horretan ekiteko. Ea aurki euskararen ofizialtasuna Nafarroa guztian aitortzen duen araudi berririk ikusten dugun.





Daniri egindako elkarrizketan hainbat egile eta ogibide edo lanbide ikusi ditugu: idazle, kazetari, ilustratzaile... **Egileak**, batzuetan, aditz batetik sortzen dira; bertze batzuetan, izen batetik: **-le**, **-tzaile**, **-gile**, **-ri**... atzizkiak gehituz sortzen dira. Gaurkoan **-le** eta **-tzaile** atzizkiak ikusiko ditugu. Lanbideetan, berriz, **-kera**, **-keta**, **-pena**, **-tza**, **-gintza** eta bertze batzuk erabiltzen ditugu. Liburu baten atzean jende anitzen lana dagoela badakigu. Koadro honetan zerrendatu ditugu ikus dezazuen ogibideak eta jarduerak nola sortzen diren.

ADITZA

Idatzi
Ekoiztu
Ilustratu
Iruditu
Zuzendu
Itzuli
Argitaratu
Banatu

EGILEA

idaz**lea**
ekoiz**lea**
ilustrat**zailea**
irudig**ilea**
zuzent**zailea**
itzult**zaile**
argitarat**zaile**
banat**zailea**

LANBIDEA eta JARDUERA

idaz**kera**
ekoiz**pena**
ilustrag**intza**
irudig**intza**
zuzendarit**za**
itzulpeng**intza**
argital**pena**
banak**eta**

Ondorengo esaldietan ere ogibide edo lanbide eta jarduerak bertatik kendu ditugu eta behean jarri ditugu. Ea era egokian bere tokian jartzen dituzun.

- 1.- Gure osabak altzari ederrak egiten ditu. Bera da _____ 1 _____
- 2.- Film honen makillajea izugarria da. _____ 2 _____ saria merezi dute.
- 3.- Prentsaurrekora joan eta _____ 3 _____ lanari esker idazlearen mezua ulertu genuen (alemanez ari baitzen).
- 4.- Gozotegi horretako gozoak arras preziatuak dira, bertako _____ 4 _____ Alemanian ikasi zuen.
- 5.- Jose herriz herri paketeak banatzen aritzen da; _____ 5 _____ bikaina da.
- 6.- Itzultzaile eta interprete izateko Interpretaritza eta _____ 6 _____ gradua ikasi behar da.
- 7.- Lantegi horretako _____ 7 _____ greban daude urtarilaren 8tik.
- 8.- Bilboko kale _____ 8 _____ ere muga gabeko greba abiatu dute.

gozogileak - langileak - itzulpengintza - banatzaile -
altzarigilea - garbitzaileak - makillatzaileak - itzultzailearen



INGURUKO IDAZLEAK

Ale honetan, Dani Martiarena elkarrizketatu dugun arren, badira gure bailaretan literaturaren munduan murgilduta bizi diren eta elkarrizketa bana merezi duten hainbat eta hainbat herritar. Hori dela eta, atal honetan bertze idazle horietako batzuen berri eman nahi dizuegu, nahiz eta hemen ere, ezin izanen ditugun den-denak aipatu. A! Hitz batzuk kendu ditugu testutik, beraz, zuk zeuk kokatu beharko dituzu leku egokian:

- a) betiere
- b) arren
- c) antolatzen

- d) arloetan
- e) hura
- f) egun

- g) ekimeneko
- h) aukera
- i) aritu



IZASKUN ZUBIALDE

1975ean sortu zen Irunen, baina, ...(1)..., Zubietan bizi da. 2010ean irakaskuntzan hasi zen, eta horrek haurren mundua hobeki ezagutzeko ...(2)... eman zion. Bakarne Atxukarrokekin elkarlanean zenbait liburu argitaratu ditu, ...(3)..., haur eta gazteei zuzendutakoak: Euskal mitologia. Haurrentzako ipuinak, Sarerik gabe edota Olentzero eta Maridomingi ditugu lan horietako batz

MIKEL TABERNA

1957an sortu zen Alkaiagan. Biologiako ikasketak egin zituen ...(4)..., euskara-irakasle eta itzultzaile lanetan ...(5)... zen Nafarroako Gobernuan. Poesia eta narrazioaren ...(6)... hainbat lan egin ditu; errate baterako, Mendearen ilunabarrean, Txokolatezko dinamita edota Alkasoroko benta. Harritik Hazia izeneko



ELURRE IRIARTE

Arizkunen sortu zen 1972an. ...(7)... ere irakasle lanetan ibilitakoa dugu. Bi lan argitaratu ditu: Kirika FM, bizi garen munduei begira eta Landa eremua (eta Baztan) literaturak kontatua. Baztanen ...(8)... den literatura beltzari buruzko (H)ilbeltza ...(9)... sustatzaileetako bat da Elurre.





IRAKURKETA KLUBAK

Literatura, beraz,(1)..... lurretan nahiko sasoi onean dagoela erran dezakegu. Baina idazteaz gain, irakurtzeko ohiturarik ba al dago? Kontsumitzen al dugu gure sortzaileek eskribitzen dutena? Euskaraz ala erdaraz leitzen dugu? Galdera horien daturik ez dugu, baina gauza bat(2)..... badakigu: irakurle klubak ditugu. Informazio gehiago nahi baduzu, lehenbizi hutsuneetako aukera egokia asmatu beharko duzu.

ERNE SARIRAKO!

Irakurzaletasuna ardatz, Donezteben, Elizondon, Lesakan, Beran... badira noizean noiz elkartzen diren taldetxoak; gehienak herriko liburutegien babespean sortuak. Bereizitasunak bereizitasun, gisa horretako klubek helburu eta funtzio bertsuak izaten dituzte: pertsona talde batek adostutako liburu bat irakurtzen du, gerora, elkartu eta(3)..... buruz solastatzeko. Hala, norberak etxean irakurritakoa bertzeekin eztabaidatzeko edo hausnartzeko aukera du; zuku gehixeago ateratzeko parada. Azken finean, Edmund Burke filosofoak ederki adierazi zuen honako hau: «hausnartu gabe irakurtzea digeritu gabe jatea(4)..... da».

Irakurketa taldeek koordinatzaile bat izaten dute, eta huraxe arduratu(5)..... da bilerak gidatzeaz edota partaideei liburuaren edukiaren berri emateaz. Gainera, topaketen dinamizazioaren lana ere bere gain hartzen du, horrela, kide guziek parte hartzeko aukera izan dezaten.

Jakina da irakurtzea ez(6)..... denbora-pasa hutsa; hamaika onura ekartzen ditu berarekin: pentsamendua eta imajinazioa garatzen dira, kontzentrazioan laguntzen du, hobeki(7)..... ikasten da, hizkuntzaren domeinu handiagoa lortzen da, bertzearekiko enpatia lantzen da... Eta taldean bada, hobeki, noski.

Eta zer behar da halako klub batean parte hartzeko? Ba, deus guti; irakurtzeko(8)..... bertzerik ez. Errate baterako, Bera eta Lesakako irakurle taldea hilabete behin elkartzen da: hileko azken asteazkenean lehenbizikoan; eta azken larunbatean bigarren. Beran euskarazko nahiz gaztelaniazko liburuak erabiltzen dituzte eta herriko liburutegiak kudeatzen du egitasmoa. Lesakan,(9)....., gaztelaniazko lanak leitzen dituzte bakarrik, eta Beti Gazte elkartearen eta herriko liburutegiaren artean antolatzen dute. Donezteben ere bada horrelakorik: Malerrekako emakume taldea arduratzen da(10)....., eta horiek ere hilabete behin elkartzen dira. Emakumezko idazleen lanak aletzen dituzte, hauek ere, batez ere gaztelaniaz izaten dira.

Hortaz, geurean irakurzaletasuna dagoela ikusten ahal dugu, argi eta garbi. Dena dela, dirudienez euskararen presentzia ttikia da ekimen horietan; horretan ere, zoritxarrez, gaztelania nagusi. Pena da, gure kultura eta ondarearen zati garrantzitsuari eskapatzen uzten baitiogu.

- | | | | | |
|---|--|--|---|---|
| 1. a) Bidasoako
b) Bidasoko
c) Bidasoaren | 2. a) behinik behin
b) behinik-behin
c) behinpin | 3. a) irakurrikoa
b) irakurritakoaren
c) irakurritakoari | 4. a) bezalakoa
b) bezalako
c) bezala | 5. a) ote
b) omen
c) ohi |
| 6. a) dela
b) denik
c) da | 7. a) mintzatzen
b) mintzatzer
c) mintzatzea | 8. a) gogoak
b) gogoa
c) gogo | 9. a) hortaz
b) aldiz
c) beraz | 10. a) klubaz
b) klubataz
c) klubetaz |

ERANTZUNAK



LAN eta LAN (4. or.):

1- altzarigilea; 2.- makillatzaileek; 3.-itzultzailearen; 4.- gozogileak;
5.- banatzaile; 6.- Itzulpengintza; 7.- langileak; 8.- garbitzaileak

INGURUKO IDAZLEAK (5. or.):

1- f; 2- h; 3- a; 4- b; 5- i; 6- d; 7- e; 8- c; 9- g

160. aleko sariketa erantzunak – LAN eta LAN (3. or.):

1) Nola zuk hala Agurtzanek Etxetik Plazara irakurtzen duzue.; 2) Bai gorriz, bai berdez pintatu dut atea.;
3) Gazteak ez ezik, zaharrak ere bileran agertu ziren.; 4) Bai Olentzero, Bai Aita Noel etorri ziren herrirat.
5) Malerrekan ez ezik, Baztanen ere herri ederrak daude.; 6) Nola Larun hala Saioa Nafarroako mendiak dira.

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **6. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: **Lesakako
LINDDURRENBORDA**
sagardotegian
bi lagunentzako otordua

160. aleko irabazlea:
Miguel Iribarren Irisarri
Doneztebekoa

ETXETIK PLAZARA liburua DEBALDE!!

Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan



OHARRA: erantzunak martxoaren 8a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (6. OR.):

- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 6 - _____ |
| 2 - _____ | 7 - _____ |
| 3 - _____ | 8 - _____ |
| 4 - _____ | 9 - _____ |
| 5 - _____ | 10 - _____ |



POEMARIA

Nire azken bala erabiliko dut gaur.
Nire armarik
baliagarriarenarekin,
eraginkorrarekin,
bang!!
tirokatuko zaitut.
Nire arma bakarrarekin,
hitzarekin.
Armarik mingarriarenarekin.
Poesiarekin.

Hasier Larretxea,
Azken bala

ZATOZ EUSKALTEGIRA!!

EUSKARA
indartu nahi duzu?
ZATOZ GURERA!

Zeure herrian,
Ekainera arte,
asteen 4 orduz

MAILA GUZTIAK
eta EGA

Matrikula zaitetz:

IKAbortziarik, 948 637 796,
bortziarik@ikaeuskaltegiak.eus

IKAmalerreka, 948 451 555,
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

euskara
errazago
egiten **ika**

Aldizkari honen egileak:

Bortziarik eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK

ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziarik@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

ika